



687/2019 EBAZPENA, URRIAREN 1EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, EPEA IREKITZEN DA LANPOSTU FUNTZIONAL HONETAN IZENA EMATEKO: EMERGENTZIETAKO IBILGAILUETAKO OFIZIAL GIDARIA, 3. LEHENTASUNA, 2014KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK.

Aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6a) –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia–.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko 2014ko abenduaren 16ko Giza Baliabideen zuzendariaren 361/2014 Ebazpenaren bidez ireki zen 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea; hain zuzen ere, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan eta izena emateko epea berriz irekitzeko premia sortu zen beste 5 kategoriatan.

Aipatutako Erabakiaren Hamazazpigarren Atalak, zerrenda berrien beharrei zuzendutakoak, beti irekita ez dauden kategorietan, irekitzeko aukera aurreikusten du, behin betiko edo gaitutako epealdi batean zehar, detektatutako beharren arabera, lehentasunen arabera antolatuz.

Horiek guztiak horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Emergentzietako Ibilgailuetako Ofizial Gidariaren lanpostu funtzionalaren -3. Lehentasunean- 2014ko Aldi Baterako Kontratazio-zerrendetan izena emateko epea irekitzea, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Hamazazpigarren Atalarekin bat etorriz, Osakidetzak etorkizunean izan ahal dituen beharrei erantzuteko hautagai-kopurua handitzeko beharra dagoelako.

Eskaerak, 2019ko urriaren 2tik 22ra arte egin ahalko dira, biak barne.

Aipatutako zerrendak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalean aurreikusitakoaren arabera barematuko dira, eta egun indarrean dauden zerrendetako azken hautagaiaren atzetik antolatuko dira.

Bigarrena.- Eskuera modu telematikoa egin beharko da, <http://www.osakidetza.eus> web orrian eskuragarri duzun aldi baterako kontratazio-programatik, ibilbide honetan: Enplegu publikoa/ Aldi baterako kontratazioa/2014ko kontratazio-zerrendak/Eskabidea.

Hirugarrena.- Kontratazio-zerrendetan onartua izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta izen-ematearekin lotutako bestelako alderdi batzuk izena emateko epea zabaltzearekin batera esandako web orrian argitaratuko diren jarraibideetan zehaztuko dira.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean


María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD